

# LEZAMA-LEGIZAMON INDUSTRIALDEAREN KUDEAKETA ETA EKINTZA PLAN INTEGRALA (ETXEBARRI)

*Posted on 14/07/2025 by Alex Atxa*

**Lezama-Legizamon Industrialdea**, Etxebarriko udalerrian kokatua, **Kudeaketa eta Ekintza Plan Integrala** lantzen hasi da, helburu nagusitzat hartuta gune industrial estrategiko honen kontserbazioa, hobekuntza, egokitzapena eta berroneratzea.

1977an sortua eta Nerbioi ibaiaren ertzean kokatua, industrialdeak **307.000 m<sup>2</sup>** baino gehiago hartzen ditu eta 110 enpresa baino gehiago biltzen ditu, industria eta zerbitzu sektoreetakoak. Barne-antolaketa **Lezama-Legizamon Industrialdearen Kontserbazio Entitateak** kudeatzen du, jabeen komunitate baten bidez.

Plan berriak gaur egungo egoeraren **diagnostiko multidimentsionala** uztartzen du, eragileen arteko koordinazioa indartzeko gobernantza ereduaren definizioarekin. Horrez gain, ekintza zehatzak identifikatuko ditu eta ezarpen-bide orri bat garatuko du, industrialdearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hurrengo urteetan sendotzeko.

Naiderrrek laguntza tekniko espezializatua eskaintzen du prozesua gidatzeko eta industrialdeari estrategia integrala emateko, etorkizuneko erronka ekonomiko, sozial eta ingurumenekoetara egokitzeko eta modernizatzeko bidean.

